

Hegoaizearen urrea

Hondarribia, 24. zk., 1988-09: 24.

Haizea hegoaldetik dator.

Lehorra da, idorretik datorren guztia bezala.

Udazkenean maiz irteten da Hegoa lanera; ehiartu behar bait ditu zuhaitzen hostoak eta artaburuak, lehortu arropa, astindu emakumeen gonak, (oraindik aktiboan geratzen direnak) eta odola berotzeko duen tradizioari ere eutsi behar dio. Bestalde, ez zaio ezer kostatzen bidez garoak urrez gorritzea eta hondartzak orraztea...

Hau ikustera etorri zaio goiz eta bakarrik norbait; utzi ditu oinetakoak bazter batean, eta ez dira galtzurdinen azpiko zain urdin lodiaz markatuak dauden zangoak uretara joan, baizik eta txapelaren teilazpitik hondarretara begira heldu zaio itsasgizona... itsasoaren hondarra du aztergai.

Makil xume bat darama eskuan hondarrarekin jostatzeko...

Gizonak badu, lan honetan ari den bitartean, pentsatzeko beta, ez baitu ibiltzeak eta begiratzeak buruko lanik trabatzen... Eta orain gutxienez berrogei urte mutil koskorra zela eta aitaren eskutik zetorrela ikusten du bere burua gaurko giro berean hondarra harrotuari dizdira bat ikusi nahian... Eta hau dena behin bere aitona hondarretan, gaur bezalako haize giro batez urrezko erloju bat aurkitu zuelako... hondarpetik beretzat lehorreko haizeak agertarazi zuelako...

Ez zen Guadalupeko Ama ikusteko mirakulua izan, baina Honen nobena hasterakoan gertatu zenez gero, Amabirjinari eskerrak ematera joan zen aitona; aitak, tradizioari jarraitu zion, eta berdin egin du honek orain, nobena hasi bezperan... Aitona urrezko erloju aurkitu zuen garai hartan egin omen zuen promes bat betetzera. Ez zion aitona zenak inori esan zertaz egin izan zen promes hura, baina geroztik horrelaxe etorri izan dira etxekoek hondartzara, denbora pasa bezala.

Hegoak bizkarra berotzen diola eta bultzatzen... hegoa harrotzen ari den hondarrei dirdira ikus nahian, begiak erre arte, beroa baita haizea eta berotzen ari hondarra eguzkitan dagoeneko... Urteak dira ahalegin hauen alferrak dirauela! Gaur inork ez du ezer gaitzen hondarretan, bainistek honera etorri aurretik bitxiak kofretan gordetzen hasiak ziren susmoak bazituen dagoeneko aita zenak...

"Gainera, ez dakit urrezko sakel erloju eder hark zertarako balio izan digun, gordeta baitago geroztik etxean...; nork jantziko zuen... txupina gabeko familia izan bat gera gu beti; txupinik ez baina bista bai ona, eta erloju gure bistarentzat trofeo bat bezala izan da belaunaldiz belaunaldi: "Bista asko duen familiarentzat emana", esaten zuen aitona... Neuk ez dut niretzat ezer nahi, ezta ez dudana semearentzat ere, eta andrerik ez dut!...

"Gaurkoz nahiko izango dut".

"Alferrik aritzeak aspertzen baitu"...

Eta itzuli da gizon heldua oinetakoak utzi dituen baztertxora, jantzi ditu, eta badoa bere bidetik itzulian... Bihar ez du goizez etortzerik izango, nobenara joateko hori ere

familiako ohitura baita, eta ona, hortik gauza txarrik ez da sekula etorri... sartu da herrian agur hemen, agur han, eta pentsatzen ari da Alardera atxero handi-handia amantal eta guzti jazten denean bakarrik eramaten duela erlojua berekin, ezkutua den barruko txupinean, eta noizean behin ateratzen du beretzat, ordua ikusteko, aitonari Guadalupeko Amak eman ziona egun honetan publikoki zerbitzua eman dezan... Eta etxera heldu da, eta egurrezko eskaileretako bi tramu igo eta gero, giltza eskuan, atea irikitzen dihoala... berez joaten zaio atea, irekia dago!... Nola daiteke!... zabalik! "Neuk utzi ote dut honela ustekabe!"... Eta sartzen da sukaldera, utzi duen katilua hutsa... eta gelara, eta hemengo armairua ere zabalik, kaxoia irtena!... Tximistak jo balu bezala joan zaio bere esku handia kofretxoraino, ireki du... eta ez dago!... Ez dago erlojurik, adio urrea, adio kezkak... eta adio promesa, zertaz den ez badaki ere!

Bada, hondarrak ekarri ziguna, hondarrak eraman du!... han zegoen bitartean ostu bait diote!

Baina seinale bat ere izan daiteke, konformitateak aisa asmatzen baitira batzutan, besterik ez dagoenean. Norentzat geratuko litzateke erloju honen tradizioa?... nork emango lioke egunero kuerda, ez baitzaio, ez semerik ez ilobarik geratzen!

Behar bada, hori esan nahi du, bixta ona betirako joan zaigula.

Beste norbaitek izan du hobea!